

Aprilaren 17an izango dan Ubideko Biran ibilbide bi aukeran

11. orrialdea

Mokotsa okindegietan

Morrokotea edo mokotsa salgai egongo da Arratiako hainbat okindegietan Pazko domekan. Arrautzadun opil hau aita-amabitiak oparitzen deutsee besoetakoai. Pazkoetan arrautzea oparitzea munduko hainbat herrialdetan gordetzen dan ohitura da, besteak beste, Ingalaterran, Estatu Batuetan eta Erdialdeko Europan. Arratian be bizirik dirau ohitura honek. 13. orrialdea



80 urte betetzen dira Arrati'ko Deya argitaratu zanetik

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

141

2011ko aprilaren 14a
hamabostekaria
www.begitu.org

Galapan, karran, Korrika...

Arteatik sartu Areatzara joan eta barriro buelta
Arteara, handik Arantzarura, Igorrera eta
Lemoatik urtengo dau Korrikak Zornotzarantza.

Horixe da egingo dauan ibilbidea hilaren 16ko ordu txikietan. Arratiako hirurogei alkarte, talde edo norbanakok ipini dabe dirua kilometroak erosteko eta bertan egongo dira lekukoa eroateko prest.

Bezperan, umeak egingo dabe Korrika Txiki Bediatik Zeanuriraino eta han jaia izango dabe. Kukubiltxok, Kukubel 2.0 ikuskizuna eskeiniko dau eta. Areatzan autobusa ipiniko dabe bertako umeak festa horretan partu hartu daien. Gauean Korrika afaria eta kantaldia. Igorren 22:30ean *Sekula bai!* antzezlan egongo da gau horretan.

Domekan, hainbat arratiar joango dira Donostiara, han amaituten da eta,

AEK-k antolatuten dauan Euskal Herri osotik pasetan dan lasterketa hau.

Gatxa da jakitea zenbat arratiarrek hartuko daben parte euskeraren aldeko mobimentu honetan, baina km.a erosi dabenak ikusita eta antolatu diran ekintzak kontuan hartuta esan geinke Arratiako gizartearen zati handi bat egongo dala egunotan ospatuten dan euskerearen aldeko jaiari.

Korrikagaz batzean dan dirua AEK-ren 100 euskaltegi eta gau eskola baino gehiago mantentiduteko izango da; batez be, Nafarroa eta Iparraldekoak. Izan be, lurralde horreetan erakundeak ez dabe diruz lagunduten AEK. 8. eta 9. orrialdeak



DIMA

Aita Lino Akesolori omenaldia aprilaren 15ean

Aita Lino Akesolo dimoztar eta karmeldarraren lehenengo mendeurrena gogoratuteko omenaldia prestau dabe Diman Euskaltzaindiak eta Dimako Udalak. Andres Urrutia euskaltzainburua eta Jose Ramon Garai, Dimako alkatea egongo dira bertan, beste personalidade askoren artean. Ekitaldia 18:30ean hasiko da aurrekuagaz eta ostean plaka bat ipiniko dabe. Gero, Pleno Areatoan, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartuko dau berbea eta hiru hizlarik Lino Akesolo ekarriko dabe gogora hitzaldi banagaz. Amaituteko, Josune Arizondo Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Diputaduak eta Jose Ramon Garai Dimako alkateak egingo dabe berba. 7. orrialdea

IGORRE

Gea Iberica burrukan

Aprilaren 7an, ELA eta LAB sindikatuak antolatuta eta Igorreko hainbat eragileren atxikimenduagaz GEA Ibericako beharginak manifestazinoa egin eben Igorren, kaleratzeen kontra protestetako. Martiaren 17an, Gea Ibericako zuzendaritzak 7 behargin kaleratu zituan eta martiaren 31tik aprilaren 7ra arte, beharginak egunero ordubeteko lanixtea egin dabe. 6. orrialdea

ARRATIA

Bizkaiko Bardintasun saria Bediak

Foru Aldundiak Bediari emon deutso Bardintasun Saria. Dana dala, Bediak ez dauka -ezta Arratiako beste herriak be- bardintasun teknikaririk. Herri guztietako planak aurrera aterateko aukera bat Mankomunitateak teknikaria kontratetea litzatekeala dino Mankomunitateko presidentea eta Bediako alkatea dan Aitor Sorriketak. Baina aurrekontuetan ez dago diru partidarik horretarako. 5. orrialdea

ARRATIA
ZERBITZU INMOBILIARIOAK
Diman etxe barriak

Dima erdian.
Leku pribilegiatuan. Oso eguzkitsua.
2011ko urtean zehar hasiko gara eraikitzen.
2 eta 3 gelako etxebizitzak bainugela bigaz.
Garajeak eta trastelekuak.
Hurbildu zaituz Igorreko Arratia Inmobiliariara eta informazinoa emongo deusugu.

ZEURE BERBEA

Igorren aurrekontuak bai

Martiaren 28an onartu ziran Igorren, EAJ/PNVren zinegotziak, martiaren 18an udaleko erregistroan sarrerea emon eutsien aurrekontuak. Urtilaren 10ean Igorre Danontzat taldeagaz batera aurkeztutako berbera da, 2010eko diru kontuen likidazioa egin ostean, geratutako dirutzea kontuan hartu izan dalarik azken honetan, hori da desbardintasun bakarra; baina kontzeptuen arabera bardinak dira, orduan defendatu genduzan era bardinean.

Ezker abertzalearen udal taldeak, orain arte inondik inora onartzen izan ez dituan kontzeptuak, orain, hiru hilabete aurrekontuak bahituta euki ostean, lehenengo egunean aurkeztu jakozan era bardinean onartu ditu. Gure uste apalean, ez da

alperreko joera bat izan euren, egoera horri probetxua ateraten ahalegindu dira. Denpora horretan beste udal talde bion desprestigioa ereiteari ekin deutsee, guzurrez eta manipulazinoz gu hainbat kontzepturen kontra gagozala herrian zehar zabalduz. Onartu dan aurrekontuan argi dago EAJ/PNV ez dagoala esan daben ezereen kontra, beharrezkoa dan guztiaren alde baino. Ezereen kontra egon bagagoz, eurek daukien egiteko erearen kontra da.

Ez gara jausi eta ez gara jausiko be ezker abertzaleak daukan guzurrez eta manipulazinoz jantzi-tako jokabide bardina erabiltera, edo/eta bere jokoan; guk, orain arte lez, gure bidea jarraituko dogu, dakigun erarik onena erabiliz herritarren alde lan eginez.

IGORREKO EAJ/PNV-REN UDAL TALDEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

Lapatza



Lapatza berez gure landetan ugaria dan landarea da. Badakizu, irakurle, oinez joan eta, batzuetan, fraka-barrenetan edo txapinetan itsatsita geldituten diran bedar bizartsuak zeintzuk diran? Argazkian ikusi zeinkez.

Erropeatik kentzean gaxak diranez, albotik alde egiten ez dauan lagun kantsagari edo astunari esateko be erabilten da esakera hau: "Lapatza baino txarragoa dok/na hori!".

ERETXIA



JOXE BELMONTE FERNANDEZ DE LARRINOA

Idazlea

Omenaldia eta hausnarketea

Liburu bat maitasuna da. Maiteminduari begiradea galtzean jako orri misterio-tsuetan, azalak, irakurlearena eta liburuarena, laztan baten fusioetan dira, eta berbak ordura arte deskubridu bako sentimenduak esnatzen deutseez. Irakurle horrek, maitemindu horrek, barru-barruan izango dau beti lehen hurbilketa horretan harrapauta itxi dauan usaina, eta maite dauan objektuari hurreratzen jakon bakotxean hasierako kitzikatze hori bueltauko jako. Zoramen hutsa, maitemina!

Liburu bat ispilua da. Orrien kontakizunean murgiltzen da irakurlea, emozinoz emozino, honako honegaz identifikauz, hango haren jarrerrea txarretsiz. Islatu egiten da garana eta ez garana, egingo gendukeana eta sekula be egingo ez gendukeana, akaso egin gura izango ez gendukeana, baina marraztutako zirkunstantzia berezi horreetan egitera ausartuko ginatkeana. Eguzkia euriaren ostean, ortzadarra; bizitzaren koloreak agertzen deutzaz liburuak irakurleari, bere burua ezagutzen lagunduz. Letretako ispilua! Kontakizunetako lentea!

Liburu bat fantasia da, ortzadarrereko kolore guztietan zehar ibiltera konbidatzen dauana, irakurleak inoz be egingo ez leukeana egiteko ausardia emoten dauana, gura dauan andrea zein gizona ezagutu, kontinente barri bat deskubridu edo sortu, existiduten ez diran lurraldeak be bisitau, lainoen

ganetik ibili, hildakoak piztu, ogiak eta arrainak biderkatu, itsuari ikusmena itzuli, edota mundu guztia bat-batean itsutu, fantasiak ez dauka mugarik eta, ez legezkorik ez moralik. Fantasia norberarengan dago, eta literaturak esnatu egiten dau.

Liburu bat alkartruckerako objektua da, hartu-emon batzuen ardatza, adiskide batzuen arteko berbagaia, solaskide bi edo gehiagoren arteko eztabaidaren arazoia, maitale biren arteko istorioaren hasierea...

Liburu bat adiskidea da bakardade-momentuetan, eta adierazpen askatasunaren ikurra, edo herrialdeetako kultura desbardinen arteko loturea, baita eskubideen jagolea be, injustizien salatzailea batzuetan, beharrezko atsedenaldia, negarra eta irribarrea, istorio eta historia, egia eta guzurra, barkamena eta gupidagaitza.

Liburu bat ez da egun bat, ez da apirilaren 23a bakarrik, baina ez dago txarto egun horretan guztiok batera liburuari omenaldia egitea, ez dago txarto orain inoz baino beharrezkoagoa dan hausnarketea egitea be, begi bat iraganean jarrita, bestea etorkizun digitalean. Pentsau zer galdu, zer irabazten dogun sasoi barrietan.

BATZ
BATZ, S. KOOP.
Tornea auzoa, 32
48140 IGORRE (BIZKAIA)

- Trokelgintza
- Automobiletarako Sistemak

Beharreen beharrez, euskeraz eginez

Enbata
Batzen gaitu

MONDRAGON
INDUSTRIAL COOPERATIVE

LUMATUTEN



IGOR ESTANKONA

Hemen gagoz...

Euskerearen alde. Uleak laztu egiten jataz oraindino Korrikaren sugetzara Euskal Herriko herri eta urietatik, portu eta lautadetatik, egun eta gau izartsuetatik pasetan ikusten dodanean. Furgonetearen atzean galapan, ostera, kostau malkoari eustea: Korrika emozionantea da.

Gatzelu paretik Bildosolarantza eroan genduan, erdi ta erdi, Kepa Bengoak eta nik kilometro baten testigua orain dala urte asko. Idealizau egin dot momentua, eta igual oker egongo naz, baina uste dot bide bazterreko haretzak makurtu egin zirala, Igorreraino joan ginala inertiaren inertiaz, gure hizkuntza aurrera, beti aurrera egiten ikusi gurearen amorruez. Petoa, mimoz amak plegauta, ikastolako gabonetako Lemoako jaialdian 8. mailakoai erositako puzzle kaja huts baten dago, ba-

dakit non.

Baina nostalgia hau guztia zergaitik? Esateko, bakar-bakarrik, Korrikaren alderdi erromantikoaz aparte badagoala beste bat, isilagoa eta ilunagoa. Korrikaren inguruan biltzean dira borondateak, ekitaldi kulturalak egiten dira, mezuak heldu arazoten dira... begien bistan ipinten deusku Korrikak hizkuntzearen bidea luzea, ederra eta gogorra dala. Korrika ez da festa, ez da, hedabideak modu interesatuan kontetan daben legez, "euskerearen aldeko lasterketa". Moskeauta nago horregaz, egia esan: AEK-k antolatutako lasterketa da, dirua biltzeako, pilak kargetako eta kritiketako, oraindino be, ez dala errespetetan bertako hizkuntzea. AEK baztertuta eta itota daukien berberak, kilometroa erosi eta petoa errementau beharrean daroen askok.

ZERTZEAN



IKER YURREBASO

Kilonbo intergalaktikoa

Japoniako lurrikara hura beldurgarria izan zen, lur-azalak dardar egin zuen, itsasoak negar, eta zeruak uranioaren kolorea hartu zuen. Bat-batean dena joan zen pikutara, hartara, nire bizitzan lehendabizikoz, jaungoiko ahalguztidun bat desiratu nuen, "betoz arren aingeruak gu salbatzera, betoz, arren". Baina ez zen inor jaitsi handik goitik, be-launiko jarri arren.

Horko hori, mehe eta luze hori, urrunetik dator, ekialdeko eskualdetik. Larruzko jaka urratu bat darma aldean, motxila arin bat lepoan eta ezpata esku batean. Ez da samurai bat, errefuxiatu bat baizik. Zenbat begirada galdu gurutzatu ditudan gaur ez dakit zehazki, milatik gora bai, ziur aski. Denak ari dira zerbaiten bila, ur edangarria, kontserba latak, eskopeta eta munizioak, edo botak, edo nik zer dakit ba.

Lurrikara hark planetaren errotazio ardatza aldatu zuen, bat-batean dena hasi zen azkar batean jira biratzen, egunak bost minutu irauten zuen, eta gauak beste horrenbeste, dena zihonan oso azkar, grabitazio

hutsa sentitu nuen segundo pare batez, jira eta bira, hotz nintzen, hotz... Orduan *kilonbo itergalaktikoa* sartu ginen, beste dimentsio batean, planeta handiago baten inguruan genbiltzan orbitatzen, ilargia bagina bezala, extralurtarrak ginen.

Hilabeteak pasatu dira, edo urteak, ez dakit ondo. Hemen inor ez da inortaz fido, ez dago kolektiborik, talde txikitik mugitzen dira hondamendi hartatik bizirik atera zirenak. Nik faltan botatzen ditut beste guztiak.

Izar berri bat dugu eguzki, urdina da, eta ez du asko berotzen. Gauak gorriak dira, aurrez-aurre dugun planetatik izpi suntsitzaileen bidez ehizatzen gaituztenean, batez ere. Zer diren, ez dakit. Zer itxura duten, ezta ere. Bihozgabeak dira, krudelak, eta oso ondo armatuta daude.

Horko hori, mehe eta luze hori, ni naiz. Oinez zeharkatu dut ozeanoa, aldiro-aldiro izozten baita. Paraje bakartia eta seguruagoen bila alde egin dut. Nire pausoen oihartzuna besterik ez dut aditzen orain.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Argazkian Probatu Euskeraz kanpainearen zozketako irabazlea daukagu: Itxaso Atutxa, 200€ko bonoa eskuetan daukala. Ondoa, Igorreko Udaleko euskera zinegotzia Oihane Goioaga eta BEINKE! Igorreko merkatarien euskera taldeko ordezkaria, Mari Jose Barrenetxea.

Hiru andrazko, zenbaki honek andrazkoak ateraten duan argazki bakarrean.

Estralurtar batek BEGITUKO ale hau hartuko baleu eta bertan agertuten diran argazkiai bistazo bat jo ezker, pentsauko leuke Arratian ez dagoala andrazkorik, ez dabela berbea hartuten edo Arratiako gizartea edota hedabideak XIX. gizaldikoak dirala. Baina ez da holan. Eta zenbaki honetan gizonak hartu badabe berbea be, andrazkoak be berbea daukiela argazki eta sari hau dira lekuko. Lehenengo berba hori euskeraz da Itxaso Atutxaren kasuan.

Zorionak Itxaso eta eskerrik asko hiruroi. Berbea eta espazio publikoa andrazkoena be badalako, batzuetan hedabideak islatu ez arren.



Gorosti
LORAZAINTZA

Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48. 142 Artea
Tel.: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aideroa
Odontologia

Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bikala
T. 94 631 50 39

Marina Urigoitia MD
R.P.S. 21/06

EXCAVACIONES
MARGOIZA

Isaki
Martín Gorostiza

Ubideratzeak
Lurrerauzketak
Baso pistak
Ur Putzuak
Era guztietako hondeaketak

Bº URIBE - 48144 ZEANURI
Tel. 607 272 424
610 271 128
Tel/Fax: 94 433 22 28
e-mail: margoiza@euskonet.net

ARRATIA

Aitor Sorriketa: "bardintasan teknikaria eukitea ondo legoke"

Bizkaiko Foru Aldundiak Bardintasan Saria 2011 emon deuto Bediako Udalarari. Arratian hiru herrik -Areatzak, Bediak eta Igorrek- daukie Bardintasan plana, eta beste batek -Dimak- diagnostikoa eginda dauka, baina Arratia osoan ez dago planok martxan ipinteko teknikaririk. Mankomunidadeak bardintasunerako proiektu birentzako diru laguntzak eskatu dauz eta udal guztietako bardintasan planak martxan ipinteko teknikari bat kontratatetaren alde dago. Dana dala, asmo hori euki arren, aurrekontuetan ez da horretarako diru partidarik aurreikusi.

Bizkaiko Bardintasan saria jaso dauan Bediako alkate eta Mankomunitateko presidentea dan Aitor Sorriketaz egin dau berba BEGITUK.

Erredakzinoa

Bediari Bardintasan saria emon deusie. Zergaitik?

2008an egin genduan Bardintasunari buruzko diagnostikoa eta ostean Plana. 2010ean hasi ginan planagaz. Arratia mailan Areatzak, Bediak eta Igorrek daukie onartuta Plana. Areatzak bigarren Plana dauka martxan, guk lehenengoa.

2010ean 18 urtetik gorako gizonai bardintasanaren ganeko inkestea egin geuntsan, gizonak bardintasunera bideratuteko ekintzak egiteko.

Gero zineforuma be egin genduan, azaroan 25ean eta udalekuean, "erantzukidetasun tailerrak". 10 urtetik gorako umeentzat. Estereotipoak apurtuteko.

Nik uste dot hori dala Foru Aldundiari gehien gustau jakona. Uda-

leketan sartzea holango tailerrak. Umetatik hasi behar dalako bardintasuna lantzean.

Dana dala, hiru ekintza egin ziran: gizonai inkestea, pelikulea eta udalekueko tailerrak.

Zenbat ume egon ziran udaleku horretan?

40-45 ume. Baina udalekuak izaten dira 6 urtetik 13 urte artera eta tailerrak 10 urtetik gorakoentzat dira. Ez dakit zenbat egongo ziran.

Komentau deustazuz igazko ekintza hiru horreek, baina zein da egiten zabizien beharra bardintasunari jagokonean.

Urtean-urtean egiten doguz hiru ekintza. Foru Aldundiak jasoten dogun diruagaz. Aurten be udalekuean egingo doguz tailer horreek, gero egingo da beste zineforum bat eta hirugarren ekintza bat be egingo dogu.

Bardintasan planak dirala-eta, Arratian egonezin moduko bat sortu da, teoria eta praktikaren artean dagoan aldeagaitik. Teorian, danak agertzen dira alde, baina horretarako dirua ipinteko momentuan gauzak aldatu egiten dira. Igorren onartu zan plana baina hori aurrera aterateko ez da kontratau teknikari-

rik. Bedian be, aurrera ateratzen dozue teknikari barik.

Bai, hala da, eta gauza batzuk praktikan ipinteko mankomunidadearen bidez egiten hasi gara. Mankomunidadeak berez ez dauka planik, baina mankomunidadearen bidez ikerketa bi egingo dira. Bata, genero indarkeriaren kontrako protokoloa egiteko, eta bestea, Arratiako andren ekarpenak ikertzeko. Emakunden eskatu dira dirulaguntzak.

Batu egiten bagara udaletxeak lortu ahal doguz dirulaguntza gehiago. Areatzako zinegotzia etorri zan mankomunidadea proposamen horregaz eta guk ondo ikusi genduan eta horregaitik eskatu deusagu dirulaguntza Emakunderi. Gero, hurrengo pausua izango da dirulaguntza daukagunean adjukazino bat egitea enpresa bateri. Ikerketa hori egiteko ez da teknikaririk behar izango.

Baina nik uste dot ona izango litzatekeala teknikari bat eukitea. Herri bakotzak egin ahal dau bere plana eta planok aurrera eroateko, manko-

munidadeak kontratau ahal dau teknikari bat. Nire ustez hori litzateke egokiena.

Herrietan ezin doguz bardintasan planak aurrera eroan alde batetik diru gitxi daukagulako eta ezin dogulako teknikaria kontratau eta bestetik, alkatetako eta zinegotziak ez gagozalako prestautu hori aurrera aterateko.

Diru partidarik badago mankomunidadean horretarako?

Ez aurrekontuetan ez dogu ipini diru teknikaria kontratatetako. Baina diru laguntzak eskatu doguz ikerketa bi martxan ipinteko eta nik uste dot, hori dala pausu bat geroago teknikari bat eukiteko.

Emakunderi dirua eskatu jako proiektu bi horretako, baina ze puntutan dagoz?

Diru laguntza eskatuteko dokumentazioa bialdu da eta orain Emakunderen erantzunaren zain gagoz. Emakundek esaten dauanean badaukagula diru laguntza, hasiko gara lanean martxan ipinteko. Nik uste dot aurten izan beharko dala.

LEMOA

Giza zerbitzuak ondo, ingurumena txarto

Erredakzinoa

Lemoako udalerriari aurtengo zezeilan egindako galdetegiaren emoitza emon ditu jakitera Lemoako Udalak. Udalak eskatuta Gizaker enpresek egin eban azterketa zezeilaren 3tik 11ra arte. Horretarako, 400 lemoaztar inkestau zituen telefonoz.

Galderak, herritarrak daukien Lemoako irudia, udala eta beste udal gaien inguruan izan zan. Botoaren eboluzinoa eta ondorioak be azterzen dira ikerketa honetan.

Lemoa biziteko leku ona

Gizakerrek egindako inkestaren arabera, lemoaztarrak Lemoa biziteko leku ontzat daukie eta 7,35 emoi-

tza ipinten deusie. Ganera, % 80k pentsetan dau hobera egin dauala.

Beti be inkesta honen arabera, Lemoako arazorik handienak zementu-fabrika, kutsadura eta, neurri txikiago baten, trafikoa dirala uste dabe lemoaztarrak. Herriaren preminarik handienak komertzioak eta gazteentzako ekimenak dirala dinoe. Lemoako gauza onen artean berdeguneak, aparketako lekuri falta ez izatea eta herri segurutzat daukiela bertan bizi diranak.

Partidu politikoi jagokonean, "EAJ-PNV da 6tik gorako emoitza lortzean dauan bakarra, EA eta EB/ Aralarek 5etik apur bat goragoko emoitza daukie eta PSE-EEK ez dau gaitutut" dinoe Gizakerreko ondorioetan.



Aitor Sorriketa.

Elexalde
Meri eta Josetxu
Pinturak (kolore guztiak)
Egur babesleak
Suteak eta behe-suak
Garbiketa produktua
Lehendakari Agirre, 11 bis. - 48140 IGORRE (Bizkaia)
Tel. 94 673 62 34 - Fax 94 673 72 38

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
T. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Arda, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 639 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

* KIRRU * ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 baxo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 00

ekin s.l.
LAN PUBLIKAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOAK
BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: c.ekin@telefonica.net

Erreka Garraioak
Mugihorra 629 465 335
Branche auzoa, 12 LEMOA
Tlfnoa: 94 631 50 82 Faxa: 94 631 51 81

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialdea E-3 Pabeloia (Igorre)

ARRATIA

Udaletako hainbat webgune barriztu dabez BiscayTIK Fundazioaren laguntzeagaz**Erredakzioa**

BiscayTIK Fundazioaren laguntzeagaz, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Igorre, Ubide eta Zeberioko Udaleko webgunearen iturak barriztu eta edukiak gaurkotu dabez. Ganera, webgunearen bidez izapideak egin ahal izango dira laster baten udaletxera hurreratu barik. Izan be, horixe da aldaketa honeen helburua.

Webguneetan, informazio interesgarria topau daiteke: udaletxeen antolamendu eta osaketaren gane-koa, udal zerbitzu eta baliabideak, albisteak, agenda eta informazio turistikoa, besteak beste.

Prozesu baten lehenengo pausak

Hasiera baten tramite gitxi batzuk izango dira herritarrak egin ahal izango dabezanak interneten bidez. Dana dala apurka-apurka gehiago sartuko dira, beti be, jentek gehien eskatzen dituanai lehenetasuna emonez. Holan ez da egongo udaletxera joan beharrik eta tramiteok etxetik egin ahal izango dira edozein egun eta ordutan. "Laster 100 izapide baino gehiago online egin ahal izango dira, udaletxeen egiten diran izapideen % 99, hain zuzen be" dinoe Bizkaiko Foru Aldundiatik.

ARTEA

Haurreskolak 21 umerentzako lekua izango dau**Erredakzioa**

Arteako haurreskolako lanak hile honen amaierarako amaituta egotea espero dau Alberto Etxebarria Arteako alkateak. Azpiegitura egiteko beharrak dabiz egiten Astuibekoan, eskolearen ondoan. Azpiegitura egingakoan modulu aurrefabrikauak ipiniko dabez. "Udalari jagokozan beharrak amaitutakoan, haurreskolakoak izena emoteko epea zabaldu beharko dabe" azaldu deutso BEGITU alkateak.

Haurreskolak Partzuergoak daukan proiektuaren arabera, Arteako haurreskolak gela bi izango ditu. Bata 0 urteko 8 umerentzat eta bestea urtebeteko 13 umerentzat. Beraz, guztira, 21

umerentzako plazak egongo dira Arteako haurreskolan.

Haurreskolearen irekiera data oraindino ez dabela zehaztu dinoe Haurreskolak Partzuergoaren planifikazio zerbitzutik.

**Haurreskolea hemen egongo da.**

IGORRE

GEA Ibericako beharginak lanpostuak defendiduteko burrukan**Berrehun lagunetik gora batu ziran Igorren egin zan manifestazioan.****Erredakzioa**

Apirilaren 7an, GEA Ibericako beharginak manifestazioa egin eben Igorren, kaleratzeen kontrako protesta kanpainaren barruan. Martiaren 17an, Gea Ibericak 7 behargin kaleratu zituan eta martiaren 31tik apirilaren 7ra arte, beharginak egunero ordubeteko lanixtea egin dabe. Izan be, LABek BEGITU azaldukoaren arabera, enpresek 30

behargin kaleratzea aurreikusten dauan plan bat dauka.

"2010 urte hasieran Gea Ibericak Enplegu Erregulazio Espediente bat (EEE) aurkeztu eban Eusko Jaurilaritzan. LABek eta ELAK kontra egin eben eta EEEaren ebazpena enpresearen kontrako izan zan. Enpresek, ebazpen horren kontra helegitea jari eban eta barriro galdu eban. Ebazpen horren oinarria enpresek esaten ebana nekez

probatzen ebala izan zan" azaldu deutso BEGITUri Alex Azpiri LAB-ekoak.

Sindikatu honen arabera, aurtan, Gea Ibericak 200.000 euroko irabaziaz izan ditu. Baina enpresek etorkizunerako plan bat ipini dau mahai ganean 30 langile kaleratzea aurreikusten dauana eta, plan horri jarraituz, martiaren 17an 7 behargin kaleratu zituan.

Atxikimendu zabala

Igorren egindako manifestazioak Igorreko alderdi politiko zein alkartaren atxikimendua izan eban. Beste batzuen artean, Igorreko EAJ-PNVk, Igorre Danontzat-ek, Ilintiak, Zertu Kultur Elkarteak, Arantzarte Dantza Taldeak, Ganoraz Euskera Taldeak, Arratia Bizirik-ek, Axular Kultur Elkarteak, Jubiladuen alkarteak eta merkatarien alkarteak bat egin eben beharginen aldarrikapenakaz.

LAB-en arabera, beharginak enpresearen hurrengo mobimentuen zain dagoz mobilizazioak egingo diran ebazteko.

LEMOA

Cuernavacako (Mexiko) ordezkariak Lemoan**Erredakzioa**

2008tik Lemoako Udalak aurrekontuaren % 0,7 Mexikoko "kaleko umeak" lagunduteko "Pro chavos" proiektuari emoten deutso, Basque Know How Fundazioaren bidez. Apirilaren 12an, Rafael Tamayo Morelos-eko Gobernuo Garapen Ekonomiko sostengarriko idazkariak, Víctor Saucedo Cuernavacako udal presidenteordeak eta Koldo Arrese Basque Know How Fundazioako presidentek plaka bat eta proiektu honetako umeak eskuz egindako opari bat emon eutsien Lemoako alkateari.

"Pro chavos" programearen helburua kalean bizi diran edo arrisku hori daukien ume eta nerabeai etxea eukitearen bentajak eskeintzea da. Lau urte honeetan,

**Jabier Beobide Lemoako alkatea, Koldo Arrese eta Víctor Saucedo.**

Lemoak proiektu hori lagundu dau aurrekontuaren % 0,7 emonaz. "Garapen ekonomiko eta sozialerako proiektuetan alkartanean aritza garrantzitsutzat jotzen dogu. Kasu honetan, kaleko umeak jaso eta gizarteratzeko proiektuan" azaldu eban Jabier Beobide Lemoako

alkateak.

Morelos estadian (Mexiko) 750 adin txikiko bizi dira kalean. "Pro Chavos"-ek ume honeek eskolartzearen alde egiten dau behar eta kasu askotan familia bat eskeintzen deutse umeen garapen osoa lortzeako.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Airekondizio sistemak - Aire zurgitze zentralizatuak
Tutak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industriak, Pab. 07
Tel. Fax 94 679 62 76
919 736 616
48140 Igorre Bizkaia

RUGBY TABERNA

•Egin zaitez bazkide!
•09:30etik zabalik
•Asteburretan pintxo bereziak

ARRATIKO ZEKORRAK

arratiko.zekorrak@gmail.com
http://santxisme.blogspot.com/

OPEL

Ibaigane, s. Coop. Ltda.

Estazioa, 15
48330 LEMOA (Bizkaia)
Telefono: 631 33 30 - 631 31 31
Fax: 631 36 15

94 679 60 00 • email: info@aramotz.com

ARA MOTZ
Lanegun 0 Jabetzen!

Parrilo Ugarrena 2. et. - 48141 Oteiza - Bizkaia www.aramotz.com

HERRIKO BENTA

HERIKO PLAZA
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

IGORRE

Garbe urbanizetako lehen pausuak emon ditu Udalak

Erredakzioa

Udal iturriak jakitera emon da benaren arabera, Igorreko Garbe auzuneko lurrak urteak daroz urbanizatu barik eta auzokideak holan eskatuta, udalak urbanizetako lehen pausuak emon ditu. Erabilera publikokoak izan arren, auzune honetako lur batzuen jaubetza pribadua da. Zezeilaren 28ko udalbatzan, lur horreek desjaubetza eta eremu osoa urbanizetara ebatzi zan. Martian desjaubetza iragarkia jantaurrean ipini zan.

Oinezkoentzat egokituko da

Udalaren arabera, asmoa eremu osoa urbanizetara eta oinezkoentzat egokitzea da. Zugatzak be landatuko dira han. Ganera, kale

nagusian orain alkartu barik dagozan espalozi zati bi lotuko dira. "Orain arte kamino bazterretik ibili behar izan dabe auzokideak. Hori arriskutsua dala ohartua udala promotoreagaz akordio batera heldu da eta promotorearen kontura izango da kamino baztarrak alkartzea" dinoe udaletik.



Garbe auzunea.

ARRATIA

Lehiaketea egingo da Boroa-Igorre kaminoa eregiteko

Erredakzioa

Bizkaiko Foru Aldundiak lehiaketa

bat egingo dau administrazio-konzesinoaren bidez hiru errepide erradial eregiteko, tartean Boroa-Igorre kaminoa.

Aldundiatik jakitera emon da benez, Boroa eta Apario arteko tartea eregiko da lehenengo (4,7 kilometro), Lemoa eta Bediako herriguneetako trafikoa arintzeko. Elementu garrantzitsuenak honeek izango dira: N-634 errepideagazko eta AP-8 autobideagazko (Boroan) lotune barria, Landailetako tunel barria (980 metro) eta lau biaduktu.

DIMA

Aita Lino Akesolo karmeldarraren lehenengo mendeurrena gogoratzeko, Dimako udaletxean ekitaldia egingo dabe apirilaren 15ean.

Aita Lino Akesolori omenaldia

Erredakzioa

Ekitaldia Euskaltzaindiak eta Dimako Udalak antolatutuen dabe eta Andres Urrutia euskaltzainburua eta Jose Ramon Garai, Dimako alkatea egongo dira bertan, beste personalidade askoren artean.

Ekitaldia 18:30ean hasiko da udaletxe aurreko plazan. Han aureskua eta abesbatzaren ostean plaka bat ipiniko dabe. Honen ostean, Pleno Aretoan, Andres Urrutia euskaltzainburuak hartuko dau berbea

eta hiru hizlarik Lino Akesolo ekarriko dabe gogora hitzaldi banagaz. Julen Urkiza Karmel aldizkariaren zuzendari eta historialariak, *Lino Akesoloren izaerea dala eta* egingo dau berba. Gero, Luis Baraizarra karmeldarra eta euskaltzain ohorezkoak *Lino Akesolo eta euskaltzale lagunak* berbaldia emongo dau. Hirugarren berbaldia, Patxi Uribarren karmeldar eta euskaltzain osoaren *Lino Akesolo irakurle aseztina, ikertzaile sakona, hiztegitigile zorrotza* izango da. Ostean, Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura Diputaduak eta Jose Ramon Garai Dimako alkateak egingo dabe berba.

Ekitaldia amaitutakoan, bertaratu diranai Lino Akesolok bizkaieraz jarritako *Salmoak* liburua oparituko jakie eta ago-gozagarria eskeiniko da.



Aita Lino Akesolo.

expert ARRATIA

E-posta: expertarratia@cordevi.com
Lehendakari Agirre, 16 Tel. 94 673 60 55
48140 IGORRE (BIZKAIA) Fax 94 631 52 89

Ametzola Landetxea

Ametzola 1-1
48499 Zeberio
629 429 870
www.ametzola.net

Arratia, Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Begitu zure etxean eta Arratia inguruko Hiztegia doban

Egin zaitez zeu be Begitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarteak ataratako produktuak. Hamabostean behin, sariketa-zozketan parte hartuko dozu.

Izen Abizenak

Helbidea

Telefonoa E-posta

Kontu korrrenteko 20 digitoak

Urteko kuota aukeratu:

■ 35€ ■ 55€ ■ 75€

Mestu eta bidali helbide honetara:
Zertu Kultur Elkartea, Herriko plaza 24, 48142 Artea

PINTURA TAILERRA

areatza
pintura y decoración, s.l.

Pintura lanak
Goi mailako dekorazioa
Industrialia
Fabkadak
Papereztatzea

eskatu aurrekontua konpromiso barik

Tallerra 94 426 16 58
639 769 780 - 629 435 895

BASAURI



eta ehundaka kultur ekitaldi euskeraz. Gurean, be pailazoak hasi eta Mendi Amesgarriakaz amaitu arte, edade eta gustu guztientzako jentearantzako kultur ekitaldiak izan doguz.

AEK-k antolatuten dau lasterketea

Korrika AEK-k antolatuten dau. "Lehenengo alfabetatze taldeak 1965 inguruan sortu ziran, eta urte haretan antolatu zan alfabetatzearen aldeko lehenengo kanpaina. Alfabetatze arloa jorratzeaz gain, alfabetatze taldeak Euskal Herri osoan sortzean ziran neurrian, agerian geratu zan euskera irakatsi beharra euskerarik ez ekian euskal herritar multzo handiari. Horixe izan da AEKren urteotako zeregina. Halaxe sortu ziran, mobimentu hori guztia Euskaltzaindiak babestu eta bultzatu ebalarik, gau-eskola izenekoak eta, geroago, euskaltegiak" ekarri dabe gogora.

AEK helduen euskalduntze alfabetatzean, administrazio banaketak gaintuz, Euskal Herri osoan behar egiten dauan alkarte bakarra da. Horretarako 500 irakasle baino gehiago ditu eskolak emoten 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiagotan. Eta euskerea normalizetako beste zerbitzu asko.

"Horreei lagunduteko, baina batez be Iparraldeko eta Nafarroako beharri erantzun ahal izateko, jakina da-eta, eremu administratibo horreetako euskaltegi eta gau-eskolak ez dabela inondik be behar dituen diru laguntzak jasoten, erabiliko ditu AEK-k Korrika 17gaz bilduko dituan diruak".

AEK-k. "Hizkuntza baten bizi-raupenerako beharrezkoa da hiztunak erabilten jarraitu daien eta seme-alabai erakutsi deien baldintza egokiak sortutea. Baldintza horreen artean, UNESCOk adierazoten dauanez, hitz egiten dan hizkuntzearen sistema idatzia ezartzea eta modu ofizialean erakustea dagoz. Euskaltzaindia, euskerearen lurralde osoa aintzat hartuta, euskal hizkuntzaz arduratzen dan erakunde ofiziala da. 1919an sortu zanetik euskera babestea dauka helburu, eta euskerari buruzko ikerlanak egiteaz gain, berari jagoko hizkuntzearen normalkuntzarako arauak emotea".

Euskaltzaindiak ez dau bakarrik euskera batua sortu, "Euskaltzaindiak euskalkien ondarea jasoten be jakin dau".

Korrika lasterketea hasi baino lehen, Euskal Herri osoan Korrika kulturala ospatuten da. Antzerkia, bertsoak, berbaldiak, pailazoak, musikea, zinea, mendia

Km	Herria	Nork	Ordua	Metroak guztira
2082	ARTEA	Arratiako Musika Eskola	02:37	0
2083		Arratiako Bertso Eskola	02:42	800
2084		Ganoraz Arratiako Euskera Elkartea	02:45	1200
2085		Zertu Kultur Elkartea	02:48	1600
2086A	AREATZA	Zeanuriko Udala	02:53	2400
2086B		Zeanuriko Gazte Asanbladea	02:58	3200
2087A		Forestalak	03:01	3700
2087B		Dimako EAJ	03:03	4100
2088		Dimako Udala	03:06	4500
2089		Luis Prieto Lagun Artea	03:07	4900
2090		Dimako esku pelota alkarte	03:08	5100
2091A		Andraize emakume taldea	03:10	5300
2091B		Dimako Bertso Eskola	03:11	5500
2092		Dimako eskolea	03:12	5700
2093	Dimako guraso alkarte	03:14	5900	
2094	ARTEA	Dimako ezker abertzalea	03:15	6100
2095		Bediako ezker abertzalea	03:16	6300
2096		Gorosti	03:18	650
2097		Uztargi	03:21	6900
2098		Peña Gorbea	03:24	7300
2099A		Upo, Topotin eta Bartolina pailazoak	03:25	7500
2099B		Areazako Udala	03:26	7700
2100A		Areazako guraso alkarte	03:28	8100
2100B		Areazako Gazte Asanbladea	03:31	8600
2101		Arteako guraso alkarte	03:34	9000
2102	ARANTZAZU	Arteako Udala	03:38	9700
2103		Zeanuriko guraso alkarte	03:41	10100
2104		Zeanuriko eskolea	03:43	10500
2105		Arteako EA	03:46	10900
2106		Arratia Institutua	03:49	11400
2107		Arratia Institutuko guraso alkarte	03:52	11900
2108		Arratia Institutuko ikasleak	03:55	12200
2109A		Kino Mendi Taldea	03:57	12500
2110A		Argiñatx Mendi Taldea	03:58	12700
2110B		Arantzazuko Udala	03:59	12900
2111A	Arantzazuko ezker abertzalea	04:02	13300	
2111B	LEMOA	Ireltsu (Hostala)	04:05	13700
2112		Igorreko ezker abertzalea	04:08	14100
2113		Igorreko Udala	04:10	14500
2114		Arratiko Zekorrek Rugby Taldea	04:12	14800
2115		Zastaparrak Asti Taldea	04:14	15100
2116		Igorreko eskolea eta guraso alkarte	04:16	15500
2117		BATZ	04:20	16300
2118		Otxandioko Gazte Asanbladea	04:23	16700
2119		Motxogan	04:25	17100
2120		Arantzarte Dantza Taldea	04:26	17300
2121	Axular Kultur Elkartea	04:28	17600	
	Luis Iruarizaga Abesbatza	04:31	18000	
	Kailas gazte mobimentua	04:33	18400	
	Amnistiaren Aldeko Mugimendua	04:36	18800	
	Opel Ibaigane	04:41	19400	
	Etixerat alkarte	04:42	19600	
	Menditik Desertura	04:44	19900	
	Zementoseko LAB	04:47	20300	
	Lemoako Udala	04:50	20700	
	Ganzabal Mendi Taldea	04:51	20900	
	Lemoako korua	04:53	21100	
	Durundibarri Dantza Taldea	04:55	21400	
	Lemoako eskolea	04:57	21700	
	Lemoa ezker abertzalea	05:01	22300	
	Lemoako Gazte Asanbladea	05:04	22800	
	Bediako Udala			

Nok esan dau Arratian ez dagoala lekuri...
bazkalduteko?

DOMEKETAKO MENUA
Kafe ta ardo ondua barne
12,50 €

gosalduteko?

KAFEA + PINTXOA edo OPILA
2 €

Tel: 94.631.57.74
Torrea, 14 (Igorre)

MEDRANO JATETXEA
IGORRE

ETA ASKOZ GEHIAGO...
07:30ean zabalik
Eguneko menua
Prezio bereziak-ohiko bezeroentzat
Menu bereziak
Bokatak eroateko
ITZELEZKO TERRAZEA...

FUTBOLA

Federazino Kopa irabazteko aukera handiak ditu Lemoak



Puertollanoren kontrako joaneko partidua.

Maialen Egileor

Oraindino ez dago ezer ebatzita, baina Lemoak finala errezago dauka. Izan be, joanekoan 0-2 irabazi eutsan Puertollanori. Bueltako partidua eguen honetan, hilak 14, arrastiko 19:00etan da Arlonagusian. Eta Arlonagusian hain zuzen be, 0-0 bardindu eban azken partidua Lemoak Bilbao Athletic egaz. Holan, bederatzigarren postuan jarraituten dau 47 puntugaz.

Arratia

Arratiako mutlak hurbilegi ikusi zituen jaitsiera postuak eta bizkortu egin dira: bederlatzi jardunaldi eta gero, garaipena lortu dabe, Lutxanari 0-2 irabazita. Orain hamalagarren dira sailkapenean, jaitsiera postuetatik 6 puntura. Arratiako neska azken partidu biak kanpoan jokatu dabez eta emoitza bardina izan da bietan: 0-5 irabazi eutsien Berangori eta 5-0 galdu eban Pauldarraken aurka. Holan, seigarren dira 41 puntugaz.

ERRUGBIA

Arratiko Zekorrak ligaxkako txapeldun

Ainhoa Duñabeitia

Arratiko Zekorrak ligaxkako lehenengo postuan amaitu dabe denporaldia, modu ezin hobean, batez be Unai Zuluagarentzat. Jokalari beteranoaren azken partidua zan hau.

Ligaxkako irabazleak izan dira Arratiko Zekorrak bigarrenari 4 puntu aterata. Hilaren 9an izan zan azken norgehiagokea San



Unai Zuluaga jokalaria beteranoa omendu eban bere azken partiduan.

Txisme rugby zelaian. Zekorrak Uribealderen aurka jokatu eban 22-14 irabaziz. Giro bikaina, adin guztietako jentea ikusi eitekean harmailetan.

Arratiakoak partidua irabazten hasi ziran eta amaitu be holan egin eban. Entsegu bakotxean irrintziak entzuten ziran ikusleen artean. Giro polita denporaldiko azken partidua zalako. Jokalariak agurra egin eutsien Unai Zuluagari. Jokalariak azken partidua irabazita amaitu eban bere jokalari ibilbidea zekorrakaz.

Kadeteak laugarren postuan

Arratiko Zekorrak kadeteak, zekortxuak, laugarren postuan dagoz partidu baten faltan. Partidu hau Irun RT-ren aurka jokatuko dabe.

AUTOAK

V. Slalom Dima aprilaren 16an izango da



Dimako industrialdean autoa.

Erredakzioa

Zapatuan, hilak 16an, egingo da V. Slalom Dimako autoen proba Dimako industrialdean arrastiko 16:00etan. Proba hau Escuderia Nervionek antolatu dau Dimako Udalaren laguntzeagaz. Era berean, saioak puntuagarriak izango dira Bizkaiko Slalom Txapelketarako eta Euskadiko Slalom Txapelketarako. Antolatzaileak igazko arrakasta berbera eukitea espero dabe, gogoratu igaz 1.000 lagun inguru batu zala Dimako industrialdean autoak lehian ikusteko.

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com



Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia 609-79-40-54

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak • Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoa

Juan de Ajujagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnua-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN ✓
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONJUNTAN ✓
ONDARREN HEGEZINEN ASIGURUETAN ✓
Sabino Arana, 3-7 Plaza 94 673 77 41 - Faxa 94 673 04 01 - 48140 IGORRE

AKETEGIA
GAY & LORA
IGORRE

MENDIA

Ubideko Bira 17an

Betiko moduan, ibilbide bi izango dira.

Erredakzioa

Luzeak 33,5 km. izango ditu eta urteera 08:00etan izango da; laburrak, berriz, 19 km. eta parte hartzaileak 08:30ean urtengo dira plazatik. Amaitutakoan, sargardoa txotxetik, saldea, txorizoa eta gaztaia dastatzeko aukerea plazan.

Ibilbideak

Ubide-Aiaogan-Gaztelu-Motxotegi-Aldoigan-Barazar-Saldropo zatia bardina izango da ibiltari guztientzat, bai ibilbide laburra, bai luzea aukeratu dabenentzat. Gero, ibilbide laburra egin gura dabenak Kalzadara eta Ubidera

joango dira bira amaituz. Luzea egin gura dabenak, berriz, Saldropo-Atxuri-Arimekorta-Gorbeia-Azero-Lexaranda-Siskino eta Ubide.

Argazki lehiaketara be egongo da

Ubideko Birak paraje ederrak zeharkatzen ditu eta argazkiak atera ezker argazki lehiaketan parte hartu daiteke. Saria, Ubideko Urbide jatetxean persona birentzako afari edo bazkaria da. Argazkiak ubidekobira@gmail.com edo Ubideko Bira, San Juan 4, 48145 Ubide (Bizkaia)ra bialdu behar dira. Epaia urri lehenengoan emongo da.



Igazko birako irudia.

MARTXEA

Arteako I. Martxa Zikloturista

Erredakzioa

Arteako Kirol Kultur Taldeak, apirilaren 17rako Arteako I. Martxa Zikloturista antolatu dau. Txirrindulariak goizeko 09:00etan batuko dira herriko plazan 90 km. egiteko. Horniketa puntua Murgian egongo da eta mendate batzuk igo beharko ditue parte hartzaileak: Dimako Gaina, Altube eta Bikotx gane, barbarako. Arteako Udalak eta Arratiako Ziklista Elkarteak lagundu dabe.

Maiatza kulturala

Arteako Kirol Kultur Taldekoak maiatzean hile kulturala egiteko asmoa daukie. Holan, bertso bazkaria, argazki rally-a eta ber-

baldiak dabiz antolatuten ekintza askoren artean. Lehenengoa apirilaren 30ean

izango da. Orduan Mikel Garizabalek ardoa dastatzen erakutsiko dau.



Martxearen ibilbidea eta grafikoa.

	<p>BEGITUren zenbaki honetan eta hurrengo bietan aterako doguzan 3 kupoiak ebagi eta Areatzako bainuetxera joan ezker % 15eko deskontua eukiko dozu.</p>	
	<p>Balneario Areatza Areatza Hesperia Areatza Hotel Balneario</p>	
	<p>begitu maitasun osoz</p>	
		<p>> Eskeintza hau maiatzaren 31ra arte da baliogarria.</p>

eskakizun bat...
... nire aitona-amonei ez zaiela ezer falta.

Bedia udalherriaren erdialdean eta natur gune batetan estrategikoki kokatua.
Komunikazio, zerbitzu eta prestakuntza ezin hobeak.
Bilbotik 15 min. eta Galdakaoko Ospitaletik 2 minututara.
Punta puntako teknologiaz osaturiko instalakuntzak.
Mundu mailan Laga kontrol sistemaren lehen ezarrera.
15 urtetako esperientzia.
Arreta personalizatutako talde mediku multidiziplinarra.
Gure nagusien zaintzan inplikaturako eta konprometatutako pertsonal kualifikatua...

apirilaren 1etik zabalik

...eta batez ere maitasunez, maitasun osoz.

JANDONIZ
nagusientzako etxea

Jandoniz, 2 - 48390 BEDIA Bizkaia
tel. 94 631 31 30 - www.jandoniz.com

ARRATI'KO DEYA

Arrati'ko Deya: Arratiako lehenengo aldizkaria

Apirilaren 15ean 80 urte betetzen dira Arrati'ko Deya argitaratu zanetik.

Jon Urutxurtu

1931ko apirilaren 14an Espainiako II. Errepublikak aldarrikatu zuen Eibarren; egun bat beranduago, apirilaren 15ean Arrati'ko Deya, Arratian argitaratu zuen lehen aldizkariak ikusi eban argia. Euskera hutsean idatzia eta hilerro —hilebetearen 15ean— kaleratzeko asmoaz jaio zuen, Areatzan helbideratuta egoan eta Zornotzako Jaungoiko-Zalen inprimatzen zuten aldizkari hau.

Arratiako historia, nekazaritza, erlijinoa eta haraneko herri desbardinak buruzko albisteak eta gorabeherak biltzean ebazan lehen zenbakiak. Komunikabide barri honen jaiotzari buruz Euzkadi egunkarian, "Akatza"k sinatutako artikuluak zera inoan: "Gure asmoak bete ziran illonen 15'an egin eban agerkundeagaz izparrangitxu onek. Ondo apaindurik agertu da beraz Gorbeyeko mendia be Kurutzia eguzkiyeg argitartzen dabela ta barrenian Arrati'ko ibarra be basetxe solo ta guzti da aldamenian antxineko agintari"bat txuxo ta guzti Arratiarrai deyez. Berau "Goiko"na da guztiz ederto dago. Zorionak Goiko ta ekin olako euzko lanai, biar izena ba dau". Aitatzan dan Goiko, Jose Luis Goikoetxea marrazkilar ospetsua zan eta irudi hori, ale guztietan agertuko da, lehen orrialdearen goiko aldean.

Arrati'ko Deyaren arima Eulogio Gorostiaga abade zeanuriztarra izan zan. Sasoi haretan, Eulogio Areatzako kaperaua zan eta, dirudianez, giro abertzaleko jentearen laguntzeagaz, aldizkaria argitara ateratea lortu eban.

Aldizkari abertzalea eta erlijiosoa

Kutsu abertzale hori, idatzitako artikuluetan ezezik, aldizkariaren azalean jartzen eban "Jaungoikoa eta Lagi-Zarra" azpitu-luan susmatu daiteke, esaera hori EAJ/PNVren lema zan eta. Ganera, apirilaren 26ko Euzkadi egunkarian zera esaten zan: "Si alguien está obligado a comprar y a leer Arrati'ko Deya es el que se dice patriota vasco, y, por tanto, es de creer que todos los nacionalistas arratianos, han de ayudar con todas sus fuerzas al rotundo éxito de esta grandiosa empresa que los sitúa a la cabeza del movimiento vasquista rural. ¡Aurrera, arratianos!".



Arrati'ko Deya. 4. alearen lehenengo orrialdea.

Leloaren lehen berban islatzen danez, erlijinoak garrantzi handia eukan aldizkarian.

Jorrazten ziran gaiak jagokenez, atal desbardinak osatzen zuten aldizkaria: Lugintza-gauzak, Erlijio-gayak, Soziologi edo gizaritzi gayak, Itauen erantzunak, Izparrak eta Alde guztietako izparrak. Arratiako albisteak izparrak atalean azaltzen ziran, herriz herri. Guztira, ale bakotxa 10 orrikoa zan eta azkenekoan iragarkiak bakarrik azaltzen ziran, gehienbat Zeanuriko eta Areatzako dendan eta mekatarien iragarkiak, baina Bilbokoren bat be iragartzen zan.

Artikulu gehienak goitizenez sinatuta azaltzen ziran, batzuen benetako nortasuna ezagutzea lortu dogularik, adibidez "Masmalena", Eulogio Gorostiaga zan; "Zidorra", Zeanuriko Bixente Etxezarraga olerkaria; "Baserritar bat", Zeanuriko Txomin Manteola. Beste sinadura batzuk honako honeek ziran: "Elorri", "Bargundia", "Atisba", "Urrubietta", "Garai Axe". Areatzako barriemoilea "Euzkaltzale bat" zan; Igorrekoa, "Aba"; Arantzazukoa, "Kukutzekoa"; Bediakoa, "X.X."; Galdakaokoa, "Uraskako JEL Olerkarije".

Arratian eta baita Bilbo eta Galdakaoko Euzko Gaztedian erosi eitekean aldizkaria, zenbaki

bakotxa txakur handian saltzean zalarik; baten batek urte osorako harpidetu gura baeban "Arrati'ko Deya, Villaro (Bizkaya)" helbidera idatzi behar eban, "lauerleko bi", hau da, pezeta bi ordainduz.

Zoritarrez, Arrati'ko Deyak bizitza laburra izan eban: 1931 eta 1932an argitaratu zan, eta azken urte horretan gertatutako Eulogio Gorostiagaren heriotzeak aldizkariarena be ekarri eban.

Arrati'ko Deya, gaur egun hain zabaldua dagozan herri edo eskualdeetako euskerazko aldizkariaren aurrekarizat hartu daiteke.

Eulogio Gorostiaga, Arrati'ko Deyaren sortzailea eta zuzendaria

Eulogio Gorostiaga 1903an jaio zan Zeanuriko Masmalena baserian. Eta bere baserian izenagaz sinatzen ebazan Arrati'ko Deyan idatzen ebazan artikulua.

Eleiz ikasketak Gasteizen egin ebazan eta Areatzako abadea izan zan 1932an hil zan arte.

Euskal Herriaren Alde, Jaungoiko-Zale, Ekin eta Anuario de Eusko Folkore aldizkarietan hainbat lan idatzi ebazan eta 3 liburu argitaratu, bi dotrina-liburuak dira, bata *Aitorkuntza edo Konfesiōorako gertaerea* (1928) eta bestea *Josu-Kristo'ren bizitza (umientzako)* (1931); hirugarren liburua Domingo Iturrate dimoztararen biografia da: *Jaungoikoaren otein Sakramentu Deuna'ren Domingo Aba: irukoiz'tar ortozaren bizitz- edesti laburra* (1929).

1925 eta 1930 urteen artean Zeanurri buruzko etnografia ikerketak argitaratu ebazan *Anuario de Eusko Folkoren*.

1931n Arrati'ko Deya hilabetekaria sortu eban Areatzan.



Eulogio Gorostiaga abadea, Arrati'ko Deyaren sortzailea. 1928.

DISKOA

Borja Estankonak disko barria aterako dau

Maiatza hasieran argitaratuko da *Estankona*, bakarlari lez argitaratuko dauan lehenengo lana.

Erredakzioa

Musikari arteztarrak banakako bidea hartu dau Areak talde barritzailea desegin ostean. Egileak berak dinoan lez aurreko taldearen lanean aldean (*Areak* eta *Higakorra* diskoak), oraingo honek baditu hainbat desbardintasun. Bere berbetan, pop-rock estilora hurreratu da inoiz baino gehiago disko barrian, argitasunera jo dau konposizioetan eta grabazioan; iraupen estandarreko abestietara.

Musikaz aparte, letra guztiak be bereak dira diskoaren hasieratik *Idatzia ez dago ezer* abestiarena izan ezik. Horren egilea bere anaia Igor da. Estankonaren eretxiz, egoera mingarrietatik urtetako esperantza da gai nagusia diskoko abestietan.

Etxebeste eta Arrabit taldekide

Diskoa Gasteizko Sonora estudioan grabatu da Iñaki Alonso produktoreagaz. Grabazioetarako taldekide izan ditu Itsaso Etxebeste baju-jotzaile iruñarra, eta Jimmy Arrabit baxenabartarra baterian. Arrabit ezaguna da Euskal Herriko plazetan, hainbat eta hainbat taldetako kidea izan da eta; haren artean: Itoiz, Anje Duhalde edo Jimmy Arrabit Trio. Kontzertuetan be taldekide berberakaz funtzionauko dau arteztarraren proiektu barriak.

Baga-Biga disketeagaz eskuatik argitaratuko dan CDak hamar abesti bilduko ditu; horreekaz batera, Maite Yurrebaso igorretarrak zuzendutako bideoklip bat eukiko dau: *Hor, leku bat* abestiarena.



Borja Estankona arteztarra.

LEHIAKETE

Kartelik onena aukeratzen

Irati Urien

Igorretarrak parte hartu ahal dabe San Antonio jaietako kartel lehiaketan. Kartelok, paperean edo CD baten entregauko dira maiatzaren 2ko arrastiko 17:30ak baino lehen udaletxeko erregistroan.

Proiektuan "San Antonio Jaiak 2011 IGORRE bagilaren 10etik 19ra" testua agertu beharko da.

Proiektuok, izen barik aurkeztu behar dira eta proiektuagaz batera kartazal baten barruan lehiatzaileraren izen-abizenak, helbidea eta telefonoa idatzi beharko dira. Jai Batzordeko kideak osotuko daben epaimahiak, 2011ko maiatzaren 5a baino lehen jakinarazoko dau ebaztia. Proiektuak kalidade nahikoa ez badabe, irabazle bakotzat jo ahal izango da lehiaketea.

Saria, 200 eurokoa da. Irabazlea adin txikikoa bada ostera, Igorreko komertzioetan materiala erosteko 200 eurotako bonoa jasoko dau. Irabazlearen behararen egile eskubideak Jai Batzordearen esku geldituko dira.

MOKOTSA

Pazko-domekarako mokotsa izango da Arratiako okindegietan

Jon Uruxturtu

Aita-amabitiak besoetakoai *mokotsa* oparitzeko aukerea izango dabe.

Kanporamartxo, etxeramartxo, Martitzen-kamabal, Garizumea eta Aste Santua. Aste Santua Erramudomekearen eta Pazko-domekearen artean luzatzen da eta bertan Jesusen pasinoa, heriotzea eta berpizkunde gogoratzen da. Zapatu Santuko gau-ospakizunean, Jesus berpiztua irudikatzen dauan su barria isiotzen da, Kristok heriotzea gainditu dauala adierazoteko. Hurrengo egunean, Pazko-domekan —aurten apirilaren 24an— eleizkizunakaz batera oraindino ohitura zahar bat errepikatzen da urtero Euskal Herriko hainbat lekutan: aita-amabitiak euren besoetakoai arrautza bat edo gehiago daroazan ogi berezi bat oparitzean datza. Ogi horrek izen desbardinak hartzen dauz eskualdeen arabera: mokotsa zein morrokotea Arratian, olatea Orozkon, pazkopile Busturian, kapaxua Bergara aldean, komitea Santurtzin... Itxureari jagokonez,

leku batzuetan biribilak izaten dira eta beste batzuetan triangelu itxurakoak, Arratia aldean gehienbat triangelu itxurakoak.

Morrokotea, mokotsa, olatea, pazkopila, kaapaxua, komitea... Pazko aldian oparitzen diran arrautzadun ogi horreen esangurea arakaterakoan, kontuan izan behar da antxinako kultura askotan arrautzea jaiotearen, ugalkortasunaren eta

berpizkundearen sinboloa zala, eta badiudi kristauen artean berpiztu dan Kristo irudikatzen dauala. Argi dagoana zera da: aita-amabitiak eta besoetakoaren arteko erlazino bat adierazoten dauala, eta bateoagaz be zerikusia euki daikela.

Pazkoetan arrautzea oparitzea munduko hainbat herrialdetan gordetzen dan ohitura da, besteak beste Ingalaterran, Estatu Batuetan eta Erdialdeko Europan. Katalunia aldean be txokolateko arrautza, *mona* deritxana, oparitzen deutsee aita-amabitiak besoetakoai.

Nahiz eta oraindino bizirik iraun, morrokotea edo mokotsa opari-

tzeko tradizioaren indarra galtzea beste sasoi batzuetan baserrietan astero egiten zan labe-suaren gainbehereagaz batera gertatu da. Lehenago baserri bakotxak, zapatuero aste osorako ogia egiten eban eta Pazko-domeka bezperan, Zapatu Santu egunean, asteko labe-sua aprobetxatuz egiten ziran mokotsak. Gaur egun, baserrietako labe-sua ia-ia iraganeko erlikia bihurtu bada be, badagoz haren hementika ohitura zaharari eusten deusien okindegiak, eta Arratia aldean... morrokotea oparitzeko aukerea izaten da, bertako okindegiak salgai izaten dabez eta.



Mokotsa arrautza bategaz.

DUNBA

Zeberioko kaltzadatik zehar

Zeberioko eskolako 5. mailako ikasleak

Kaltzadea Areatza eta Ugao-

Miraballes lotzean zituan balio historiko eta kultural handiko errepidea da. 1.375ean Ugao-Zeberio edo *Ceberiano*ko auzune

bat zan. Urte haretan Villanueva de Miravalles sortu eta Ugao Zeberiotik banandu zan. Orduan sortu zan kaltzadea personak komuniketako eta merkantziak garraiatzeko.

Kaltzadea herritarrak egin eben urtebetean harriak erabiliz. Gaur egungo kaminoak baino bihurtune gitxiago zituan. Hasieran zubiak egurrezkoak ziran baina jentea eta animaliak ganetik pasetearen ondorioz eta eguraldiaren eraginez usteldu eta apurtu egiten ziranez, harrizkoak egiten hasi ziran.

Kaltzadea gauzak garraiatzeko erabilten zan, horretarako modu asko egozan: gurdiak, lerak, zaldiak, mandoak eta narrak. Narrak egurrezko lera bat da, tarrak eroaten zana egurra eta lastoa garraiatzeko. Txirinkak agertzean gurdiak be erabilten hasi ziran zama astunak eroateko.

Personak komuniketako be erabilten zan kaltzadea. Zeberio eta Areatzako jentek Bilbora joateko hartzean eban eta Europatik etorritako jentea be pasetan zan. Sautuolabarrin atsedena hartzeako ostatua egoan.

Kaltzadea urtero konpontzen eben apurtu egiten zalako: gurdiak eta garraioak pasetan ziralako, izotza eta euriagaitik eta harri lapurretakaitik. Gero errepide barri bat egitea pentsau eben eta persona bakotxak bere zatia ordaindu behar izan eban, txartel batzuen bitartez. Gaur egungo kamino hau 1.860. urtean eregi zan.

Kaltzadea hobeto ezagututeko asmoz, ibilbidea egin genduan kaltzadearen zati baten zehar. Zati hau, Zeberioko kamino zahararen lekukorik garrantzitsuena dalako aukeratu genduan. Ibilbide historiko hau Sautuolabarrin hasi eta Ugarten amaitu genduan.

Hasteko, eskolatik Entelladorenaraino joan ginan kaminotik eta hemendik Ermitabarriraino Kaltzada zaharretik. Bidean Agirretxubekoa iturria dago eta kaltzadako harriak bistan dagoz. Kaltzadeak erdi-erditik zeharkatzen eban Ermitabarrin, gaur egungo kaminoan doan lekutik, hain zuzen be.

Aurrera eginez, kaminoan ezkerretara egin genduan Isasirantz. Handik lasterrera Zeberio erre-

kearen ganean dagoan Leitokiko harrizko zubira heldu ginan. Kondairak dinoenez laminak topau daikeguz inguru honetan. Laminak andrazkoen gorputza eta ahateen oinak daukiez eta denpora asko pasetan dabe euren ule luzeak urrezko orraziagaz orrazten. Aitatutako zubia pasau eta ia guztiz jausita dagoan Leitokiko baserria ikusi genduan. Zati honetan be kaltzadako harriak ikusten dira.

Apur bat aurrerago usain arraro bat somatu genduan, Ugarten dagoan uratsa iturriarena, hain zuzen, eta hau ikustera joan ginan. Lehenengo harrizko zubitxu bat zeharkatu behar izan genduan eta gero sasi artetik pasau behar izan ginan.

Uratsak kolore zuria dauka eta harri larrosak topau genduzan bertan. Hango informazio panelaren arabera, 1.880. hamarkadan bainuetxea egin zan bertan, uratsa azalerako ona zalako.

Ugarteko metal uren iturrian amaitzat emon genduan gure ibilbidea.



Kaltzadako harriak Ermitabarritik Entelladorenarako bidean.

AGENDEA

APRILAK 15

AREATZA

11:30ean, Areatzako Hotelaren aurrean Korrika Txikia. 17:15ean, parkean autobusa Zeanurira joateko. Bueltea 19:30ean.

22:30ean Four Friends taldearen kontzertua Bixer tabernan.

BEDIA

Korrika Txiki. 17:00etatik 18:30era, pankarta eta tailerrak. 18:30etik 19:00etara, ibilbidea plazatik. 19:00etatik 20:00etara, filma eta tailerrak.

DIMA

18:30ean, Lino Akesolori omenaldia udaletxean.

IGORRE

20:00etan, Mendi Amesgariak, Alex Txikon *Annapurna. Shisha Pangma* Ganzabalek antolatuta. Lasarte Aretan.

22:30ean *Sekula bai!* antzezina Korrika Kulturalaren barruan Lasarte Aretan.

LEMOA

09:15ean, Arratiako Korrika Txikiren urteerak eskolatik.

ZEANURI

Korrika jaia. 12:00etan, Korrika Txikia heltzean da. 16:30ean, txalaparta eta adarra, tailerak, jokoak... 18:00etan, Kukubiltxoren *Kukubel 2.0* frontoian. 18:00etan, Arratiako gazteen futbito txapelketa. 19:30ean, triki poteoa. 21:00etan, Korrika afaria.

APRILAK 16

ARANTZAU

03:57ean, Korrika.

AREATZA

02:30ean Suzko Zezena plazan. 03:20ean Korrika.

ARTEA

02:37 Korrika. 03:31 Korrika barriro pasetan da.

DIMA

16:00etan, V. Slalom Dima Industriadan.

IGORRE

04:02 Korrika.

LEMOA

04:31 Korrika.

22:00etan Karabie Gaztearen *Pirulo Txou*. Kontzertu hau Menditik Desertura taldeak



Los Gavilanes zarzuelea 16an, Igorreko Kultur Etxean

Los Gavilanes zarzuelearen istorioa La Provenza-ko herri arrantzale baten kokatzen da. Juan herrira itzuli da Ameriketara urte luzez ibili eta bertan aberastu ostean. Harrera itzela egingo deustie herritarrek eta aspaldiko lagunak, danak uste dabe eta bere aberastasunak herriaren etorkizunari on egingo deustala.

Juanek barriro ikusiko dau Adriana, bere gaztaroko maitalea, baina ia ez dabe alkar ezagutuko hainbeste urte alkar ikusi barik egon eta gero. Rosaura ezagutuko dau be, Adrianaren alabea, ama gaztea zaneke antz handia hartuko deustoa Juanek. Adrianak Juan beragaz ezkontzeko itzuli dala uste dauan arren, Juanek Rosauraren maitasuna lortu gura izango dau kosta ala kosta eta familiaren zor guztiak erosiko ditu beragaz ezkontzera derrigortzeko. Hau danau 16an 20:00etan.

antolatu dau, laster egingo daben Saharara biatzea dala eta.

APRILAK 17

ARTEA

09:00etan, Arteako I. Marba Zikloturista.

Arteko plazan.

BEDIA

Liburuaren Eguna ospatuko da. 11:00etatik 14:00ak artera, txokoak plazan, liburuaren trukea eta irakurketa txokoa.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Gnomeo y Julita*. 19:30ean, zinea *Primos*. Lasarte Aretan.

UBIDE

08:00etan, Ubideko Biran ibilbide luzea egingo dabenen urteerak. Plazan. 08:30ean, ibilbide laburra egingo dabenen urteerak. Plazan.

ZEBERIO

11:00etatik 14:00etara, Liburuaren Eguna ospatuko da Zubialden.

APRILAK 18

LEMOA

11:00etatik 14:00etara, Aste Santuko oporretan (29ra arte) ludoteka goizez zabalik egingo da.

APRILAK 29

IGORRE

19:30ean Etxerrek antolatuta presoen aldeko konzentrazinoa.

LEMOA

Maiatzaren 1ean, amaren eguna dala eta, ludotekan tailer berezia egingo da.

APRILAK 30

ARTEA

12:00etan, ardao dastaketea ludotekan.

IGORRE

22:00etan, zinea *Cisne negro*.

MAIATZAK 1

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Ramona y su hermana*. 19:30ean, zinea *Cisne negro*. Lasarte Aretan.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU

SALTZEAN DOT

Egurrezko sehaska barri-barria saltzean dot, "Cune" markakoa, 150 eurotan, koltxoia doban. Interesatuak 665 722 575 telefonora deitu.

SALTZEAN DOT

Autoa saltzean dot. Ford Focus, 1.8 Trend, 115 cv. Diesela. 39.000km. Arrisku orotariko aseguruagaz (2012ko zezeilera arte). 9.000€. Telefona 635 007 632.

LAN ESKEINTZA

BEHAR BILA

Goizetan behar egiteko prest nago. interesatuak deitu 676 370 409 (Maite).

KLASEAK EMOTEN DIRA

Klase partikularak emoten dodaz maila guztietan, matematika, fisika, marrazketa teknika, eta abar. Ikasketak teknikoak egitera doazen ikasleak prestetan dodaz. Deitu 605 746 487 telefonora.

ESTETIZISTEA BEHAR DA

Igorreko zentro estetiko baterako

estetizistea behar da. Interesdunak 635 704 739 telefonora deitu.

EROSI

EROSTEN DOT

Umeak paseatzeko antxinako karroen bila gabiz. Atera hauts artean gordeta eta ahaztuta daukazuen karro hori, prezioa ipini eta deitu 646 597 501 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin edo behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@topagunea.com-era. Mezuak doan dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1

Igorreko Udalak emondako Fasioren Mendea CD-DVD-Liburua.

Puri Barrenetxea (Artea)
Iñigo Aranbarri (Lekeitio)



2

Igorreko Kultur Etxeak emondako sarrera bi Cisne negro filmarako.

Jurek Ziemkiewicz (Zeanuri)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. Ehun zenbaki eta ehundaka lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Suaren garrak emoten dauan argitasun. 2.- Erbioa. Zein unetan. 3.- Mila erromatar. Femenino atzizkia. Urrea. 4.- Uretan jateko prestau. Letra bat. 5.- Heldu, oratu. 6.- Boroa. Lanbro. 7.- Osmioa. Letra bi bardin. Azken letra. 8.- Leku. Errepetiduta, kontuz. 9.- Atzerrikoa.

GOITIK BEHERA

1.- Gurasoen gizonezko familia. Jaurti. 2.- Edabe garbi. Germanioa. Sentiberatasunik ez daukana. 3.- Letra bat. Estadu Batuetan sortutako musika mota. Kriptoia. 4.- Aita Santu batzuen izena. 5.- (Atz.) Euskera zaharrea, txakur. Egiptoko mitologian ama jainkosa. Letra bat. 6.- Mintza. India. Ezetza. 7.- Toles, kizkur. Justu-justuan.


V	Z	O	R	V	6	V	V	H	V	T	O	X
L	E	I	O	K	8	X	V	H	O	S	I	O
Z	S	S	O	Z	7	Z	I	J	Z	H	V	O
O	N	I	V	L	9	O	S	V	O	Z	O	N
I	S	T	E	U	5	L	N	O	I	V	A	O
R	S	I	E	G	4	H	V	S	S	I	I	I
A	V	A	S	A	3	V	X	H	O	H	O	I
Z	E	R	N	I	2	I	R	O	N	O	S	V
I	S	U	T	A	1	O	V	T	I	O	S	V
7	6	5	4	3	2	I	I	I	I	I	I	I

Topau heraldikan sarritan agertzen diran zazpi animaliren izenak.

A	Z	T	O	K	I	L	A	T	I
R	A	R	K	U	B	R	E	S	K
A	Z	K	E	R	R	O	L	A	O
N	U	A	L	A	K	A	G	O	R
D	G	A	L	G	O	A	T	T	E
A	S	I	E	D	A	M	O	B	I
G	O	S	H	E	I	B	N	A	Z
E	H	I	O	B	E	A	L	K	A
F	I	T	I	J	R	S	A	E	M
O	S	T	A	R	R	U	K	D	A
Z	O	K	A	T	I	R	O	U	T
E	I	N	O	G	E	D	A	S	O
R	O	M	A	H	G	E	T	L	Z
A	L	O	T	S	O	A	M	A	X
K	O	K	O	L	A	M	U	R	A

AKMIKO

Iman Olatu



<p>Recreativos Gubi S.L. Angel Larrea</p> <p>Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36</p>	<p>Ordie</p> <p>FOTOKOPIAK - PAPERDENDA</p> <p>L. Agirre, 7. 48140 Igorte (Biskaiak) Tlfnoa: 94 632 64 78</p>	<p>Umeen moda 0-20 urte</p> <ul style="list-style-type: none"> Babak Ray Aranda Akr Gutsuak Arandiga Guandele Leiz Massana <p>sein</p> <p>LEHENDAKARI AGIRRE, 27 • 946 319 296 seinmoda@hotmail.com</p>	<p>GARANTXE Autoeskola</p> <p>TEORIA EUSKARAZ ZEIN ERDARAZ</p> <p>Balmusak 41, A, BTE, 8</p> <p>Lehendakari Agirre 31 Tlfnoa: 94 673 71 32 48140 IGORTE (Biskaiak) garantxe@euskalnet.net</p>	<p>ARRATIA AUTOESKOLA</p> <p>karmela euskaraz zein erdaraz</p> <p>Garbe, 10 - 48140 Igorte (Biskaiak) telefonoa 94 631 54 31, Faxo 94 673 70 83 e-posta: urak@euskalnet.net</p>
<p>Hotel Brontze</p> <p>Bilbo-Centrolan, 22. Bilbo Telefonoa: 94 671 43 28 - Faxo: 94 671 43 28 48140 IGORTE (Biskaiak)</p>	<p>ALKOHOLIKO ANONIMOAK</p> <p>ARRATIAKO TALDEA</p> <p>Arazoak alkoholagaz? Arazoak badaukazuz, lagundu ahal zaitugu</p> <p>Igorre</p> <p>BATZAR EGUNAK: epautesak 20etatik 22etara Udaltzarke arropetan EPA-ko lokalak</p> <p>KONTAKTATZENO TELEFONOA: 690 139 044</p>	<p>BIXER TABERNA</p> <p>Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO</p>	<p>axular</p> <p>Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92 axularke@gmail.com</p>	<p>NAIARA Hartz Klinika</p> <p>Lehendakari Agirre, 19 48140 Igorte 94 631 52 26</p>
<p>AKESOLO, S.A.</p> <p>GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK</p> <p>Garbe, 29 Telefonoa: 94 671 40 14 IGORRE BIZKAIA</p>	<p>INCOESA</p> <p>Tel. 94 631 32 75 Faxa. 94 631 37 66 Bidekoetxe 18 48.390 Bedia</p>	<p>Bar Restaurante Montero</p> <p>Eguneko menua euskal sukaldaritza, sukaldaritza bolibiarra eta brasildarra</p> <p>Zelaia 19 - Arantzazu - 619 903 653</p>		

IBAI ATUTXA

"Euskaldunaren ideak egin ahal dauan bidea modurik eta baikorrenean ikusten dot"

Jaiotzez galdakoztarra bada be, Ibai Atutxak bizi erdia emon dau Alzustara etorten, bertan dauka eta familiaren erdia. *Tatxatuaren azpiko nazioaz* liburua argitaratu barri dau Utriusque Vasconiae argitaletxeagaz, nazinoa kontzeptuari buruzko saiakera bat kritika literarioaren bidetik. Orain bertan, Literatura Konparatuko eta Filosofia Garaikideko masterrak egin ostean, ikertzaile bisitari dabil New Yorken. Bertatik erantzun deuskuz galdera honeexek.

Urtzi Barrenetxea**Zer dala eta New Yorken?**

Bilbon Euskal Filologia ikasketak egin eta gero, Bartzelonan Literatura konparatuko eta filosofia garaikidean egin dodaz masterrak. Eta orain Valentziako Unibertsitatean doktoradutza proiektuagaz nabil, komunikazio eta ikasketa kulturaletan matrikulata.

New Yorkera, printzipioz urte bertera etorri naz ikerle bisitari edo *visiting scholar* moduan. Hemen go literatur kritika oso indartsua da eta ezkerreko pentsamentuari benetan lotuta dagoz harrigarria emoten badau be. Ganera, ikerlearen lana oso serio hartuten dabe eta sarri European faltan somatzen dan kontua da hori.

Dana dala, New York-en bizi nazela esango neuke, beste barik. Fal-mouthen, Londresen edo Bartzelonan lehenago ibili nazan moduan.

Nondik eta nora otu jatzun liburu hau idaztea?

Egia da egindako ikasketa barik, eta bide horretan (eta horretatik kanpo) ezagututako lagun barik ezin izango neukeala liburu hau idatzi. Testuak inoz baino gehiago bizi-

rik dagoan identidateari buruzko eztabaidan hartu gura dau parte, eta horretarako tresnak ezagutzeko lehenengo pausua izan dira ikasketak. Ikerle lanarentzako formakuntzea derrigorrezkoa dala ez dago dudarik. Horretaz gain, originaltasuna eta eztabaidan ekarpen baliogariak, interesgarriak, estrategikoak egin ahal izan dodazela pentsetea gustauko litxakit.

Literatura konparatua, edo ikasketak kulturaletan topau geinkezan ikuspuntuak ekarpen interesgarriak egiteko balio dabela pentsetan dot, eta gaur egun be, liburu honegaz

"Itxaro Borda eta**Hertzainaken****diskursoai****esker nortasun****euskaldunaren egia****zalantzaezin kolokan****jarri geinkez"**

hasitako bidean sakontzen nabil lan eta ikerketa barrietan. Bide horren parte izango da *Kanonaren gaineko nazioaz* izenburu probisionala daukan bigarren liburua. Lehenengo honen jarraipena izango dana, eta bukatzeko lanetan nabilana.

Lanaren lehen partean, euskal nortasuna definidu dabenegele moderno bi kritiketan dozuz: Sabino Arana eta Jorge Oteiza.

Sabino Aranaren eta Jorge Oteizaren diskursoak planteatzerakoan, gurata zein gura barik, egungo euskal identidatea definitzeko erabilten doguzan logikak topau ahal doguzala erakusten saiatzen naz. Bata XIX. mendeko burges txikiaren ikuspuntutik idatzi bazan be, eta bestea XX. mendeko klase burrukearen barruan, nazino eta estadu nazinoaren eraikuntzarako proiektu desbardinok arazo bardiak erakusten dabez, eta geu gara hareen ondorengo. Hitz laburretan esateko, planteamentu esentzialista, baztertzaile eta historiari erabat lotutakoak dakarzan arazoakaz topo egiten dogu pentsalari bien liburuetan zehar. Eta oraindino okerragoa dana, estadu espainiar edo frantsesari begira subordinazio posizino baten jartzean gaituezanak. Arazo guzti honeek azaleratzen saiatu naz, testuetako kontraesanen bitartez.

Horreen aurrean, euskaldunon identidatea osatuteko bestelako eredu bi aitatzen dozuz: Itxaro Bordaren poesia (*Milia Lastur on the road*) eta Hertzainak rock taldearen abesti bat (*Drogak AEKn*).

Testu bi honeeri esker gizarte eta identidate gatazka oso interesgari baten aurrean ipinten garala esango neuke. Hau da, Arana eta Oteizaren planteamentuetan irakurritakoak benetako aukera bakar legez jaso badoguz be, Borda eta Hertzai-

naken diskursoai esker nortasun euskaldunaren egia zalantzaezin eta ustez natural edo berezkoak diranak kolokan jarri geinkez, eta lehenago esandako izaera subordinau eta baztertzailearen aurka egin. Jada, ez da euskaldunaren definizio bat eta bakarra egongo, euskalduna eregiten joango da, aldatzen eten barik. Testuak planteamentu zabalago baten adibideak dira: isildutako eta ustez existitzen ez diran identidate euskaldunen diskursoak euskal identidate subordinatzailea barriro formulatuko balioko dabe (emakumearenak, lesbianarenak, punkiarenak, kaletarrarenak, euskaldunbarriarenak...).

Lanaren oinarria testuen azterketak dira, baktaxerako metodologia desbardina erabilia.

Metodologia desbardinak dira, dinozun legez, liburu honen giltzetako bat. Nire eretxiz, testuak ez daukie esangura bat eta bakarra, eta irakurketearen helburua ez da sakonean daukien mezu hori deskubridutea izango. Irakurketa testuagaz berba egitea dala esango neuke, itaunak egin eta erantzunen bila ibiltea. Azkenean, diskursoak erlazinoan ipintea izango da, nire ustez, irakurtea. Horretarako, testu baktaxari galderarik eta egokiena egin eta erantzunik eta mamitsue-na lortzeako metodologia desbardinak erabilten saiatu naz. Testu baktaxari berea.

"Tatxatuaren azpikoa" figura aitatzen dozu kontzeptuak aurkeztuteko.

Hain justu, goian azaldutako mobimentu hori berori izango da kontzeptu bat tatxatuaren azpian jartzea. Gure kasuan, nazinoaren ganean eregitako eta natural bihurtutako diskurso subordinatzailearen kritikak eta neurri baten baliogabetzeak kontzeptu hori tatxatzea ekarriko dau. Tatxatuaren azpian dagoan berba hori, halanda be, ez da inondik be baztertuko, egindako kritikatik abiatu eta barriro formulatuko nazinoaren idea erabiltea dakar zeozer tatxatuaren azpian ipintea.

Nondik nora aurreikusten dozu joango dala euskaldun-tasunaren idea etorkizunean?

Euskaldunaren ideak egin ahal dauan bidea modurik eta baikorrenean ikusten dot. Esan gura dodana da, eztabaida eta alkarrizketarako bidea oso modu sortzailean zabaltzen dabilala, eta eztabaidak, gaiak taularatzeak eta ideak mobimentuan ipintea ekarri ahal daua-la geure buruaren jaube egitea modu konziente eta estrategiko baten. Eztabaida horren adibide dira besteak beste, Lapiko Kritikoa, (www.basque.criticalstew.com) webgunea, edo laster urtengo dan Hausnart aldizkaria. Abots barriak eta ez hain barriak aspaldiko eztabaida honetarako.



Erreserbak egiteko: 94 657 27 05 edo 94 657 54 93
Beharrezkoak dira txanoa, txaniketak eta bainujantzia

Balneario Areatza
Areatza

Hesperia Areatza
Hotel Balneario

Maiatzak 1 – AMAREN EGUNA

Menu Berezia Hesperia Areatza Hoteleko Lur jatetxean
+
Areatzako Iturburu zirkuitua
+
Erlajetako masajea (15') edo gorputz estalketea

Prezio: 50€ / persona edo 95€ / bikoteko

% 20ko deskontua generako teknikean.

OPART BONUA